

HIRIAK URTEURRENA OSPATUKO DU EKAINAREN 13an GAU ZURIAREKIN

- 20:30etatik gaueko 2:00ak arte, hiria esna geratuko da kulturaren eta aisiaren urteko ekitaldi handirako.
- Animazioak hiriko bazter guztiak beteko ditu gau magiko honetarako sortutako 30 ikuskizun baino gehiagorekin. Musika-, antzerki eta dantza-ikuskizunak egongo dira 11 espazio desberdinetan, besteak beste, museo, arte-zentro eta eraikin ospetsuetan.
- Concha Buika abeslea, Rossy de Palma aktorea, *Puerto Candelaria* jazz taldea, Valerio Festi sortzailea, *La Fundición*, *Night Desire* ikusizko artistak, *Galatea*, *Circle of Trust* hip-hop taldea... Zalantzarik gabe, arlo guztietako eta herrialde desberdinetako artista- eta talde-sorta paregabea.
- Kalea protagonista berezi izango dugu, ustekabeko ikuskizunak eta argi-instalazioak egongo baitira espazio desberdinetan zeharreko ibilbidean.

Bilbo, 2009ko ekainaren 5ean. Ekainaren 13an, hiriak 709 urte beteko ditu eta sekula bizi izan duen Gau Zuriarekin ospatu nahi du. Bilbao 700 Fundazioak urteurrena ospatzeko egitasmoak antolatzen ditu urtero eta, aurten, ospakizunaren itzala handitu nahi du, Bilboko Udalaren nahiz hiriko kultura-eragile nagusien laguntzarekin.

Hau izango da ospakizuna gauez eta aldi berean hiri osoan gozatzeko lehen aukera, Bilbok azken urteotan hartu duen musika-arte, ikusizko arte, antzerki-arte eta arte eszenikoen erakustaldirik handiena. Gauekoentzako ospakizun horren helburua da gure hiria eta bere kultura-azpiegiturak (museoak, antzokiak, elizak, unibertsitatea...) balioztatzea, arteak eraldatutako hiria gure begien aurrean jarri eta bere kultura-ondarearen ateak parez pare irekitzeko. Hiritar guztion parte-hartzea eta inplikazioa behar izango du paregabeko gau magikoak, zuriak gain, beste kolore asko izango duen gau honek.

Gaua esna igarotzeko programa

Hogeita hamar jarduera baino gehiago pentsatu dira berriaz "Gau Zurirako": arte publikoa, musika, dantza, literatura, antzerkia, diseinua, bideo-sorkuntzak eta ezohiko bisitak dohainik hiriko museo eta arte-zentro nagusietara. Programari erreparatuz estatuan sona handia duten figurak aurkituko ditugu, hala nola, **Concha Buika** abeslea edo **Rossy de Palma** aktorea, baita nazioarteko figurak ere, esaterako, **Valerio Festi**, **Puerto Candelaria** kolonbiarrak, *Bboy Reveal* estatubatuarra edota *Night Desire*

holandarrak. Baina nota berezia bertako artista eta sortzaileek jartzen dute, adibidez, txalaparta bezalako instrumentu tradizionalekin soinu garaikideak lortzen duen **Oreka Tx** taldeak, **Kukai** eta **La Intrusa** dantza-konpainiak, **Asier Zabaleta** artistak edo **Galatea** talde bilbotarrak.

Ikuskizunek aurkikuntza-ibilbidea osatuko dute hirian zehar, Arriaga plazan, Bidebarrietako liburutegia, BilbaoArte, Santiago katedralaren ataria, Areatzako kioskoa, Bilboko Udaletxearen fatxada eta museo hauek hartuta; Guggenheim, Arte Ederren Museoa, Eleiz Museoa eta Euskal Museoa.



1-Ramón de la Sota Kaia-Concha Buika

2-Arte Ederren Bilboko Museoa

3-Deustuko Unibertsitatea-musika herrikoia

4-Guggenheim-dantza eta musika

5-Udaletxeo fatxada-proiektzioa

6-Areatzako kioskoa-Jazz Latino

7-Arriaga Plaza-Valerio Festi

8- Bidebarrietako liburutegia-irakurketak

9- Euskal Museoa-Galatea, poesia eta musika

10-Santiago katedrala-kontzertua

11-Eleiz Museoa-flamenko

12-BilbaoArte-Rosy de Palma

13-Pilulak-ustekabeko ikuskizunak

14-Argi-instalazioak

ARLO ANITZEKO ARTEA ETA IKUSKIZUNAK

Arteari dagokionez, arlo anitzeko ikuskizunez eta bideoarte bezalako ikusizko arteaz gozatzeko aukera egongo da, denak ametsei eskainitako gauean batera.

Arriaga plaza

Valerio Festi. Il Sentimento del Bianco. 22:30

Hirian aspaldi ezaguna den Valerio Festiren mundu magikotik gurera, musika, dantza eta antzerkia uztartzen dituen aireko ikuskizunaz gozatzeko parada izango dugu, zuria ardatz gisa hartuta.

Udaletxeko fatxada

Night Desire-Etengabeko proiektzioa 20:30etatik 2:00etara.

Hiru artista holandar hauen eskutik, udaletxeko leihoak proiektzio-pantaila inprobisatu bihurtuko dira.

Arte Ederren Bilboko Museoa

Gaueko ibilbidea museoan zehar. Irekiera 20:30etan, itxiera 2:00etan.

Arte Ederren Museoa bisitatzeko aukera izango dugu ikusizko eta entzunezko hainbat gonbidapenen artean. Helburua da lanek sorrarazi dezaketen musika entzunez museoan ikusteko aukera ematea publikoari. Sorpresa handi gisa, euskal margolanen aretoan, Zubiaurreren koadroetako batek bizi hartuko du.

- 1- Kantu gregorianoak. 4 Aretoa- Erromanikoa eta gotikoa.
- 2- Klabezin-kontzertua. 9 Aretoa-Barrokoa.
- 3- Ravelen eta garaikideen musika pianorako. 22 Aretoa- Erromantizismoa, Errealismoa, Impresionismoa eta Euskal Artistak.
- 4- Dantza garaikidea. 31 Aretoa-Arte garaikidea.
- 5- Koadro bat birsortzea. 32 Aretoa-Euskal Arteak.

ESZENA ETA DANTZA

Estatuko eta nazioarteko figura garrantzitsuenetako batzuek ordezkatzeko dute dantzaren eta joera berrien arloa, abangoardiaren estilo guztiak aurkezteko.

Guggenheim museoko barne-espazioan, *La Fundación*-ek bere azken ekoizpena aurkeztuko digu, Serraren lana dantza garaikidearekin elkarreaginean sartuz eta museoko ataria bereganatuz.

Beste alde batetik, **BilbaoArte** arte-ekoizpenerako zentroak Rossy de Palmaren proposamen sakona hartuko du, inor epel utziko ez duena.

BilbaoArte

Rossy de Palma. *Mater Bellum*. Emanaldiak: 21:00 eta 23:15.

Rossy de Palma arlo anitzeko artistak Nazioko Drama Zentroan antzeztu zuen bakarriketa ekarriko digu; gerrari eta emakumeari buruzko hausnarketa garrantza, itxaropen-puntua ere baduena.

Guggenheim Bilbao Museoa

Ezohiko dantza ezohiko espaziorako. Emanaldiak: 21:00/23:00/ 01:00

Zuzendaritza: La Fundación.

Artistak:

Maura Morales (Kuba/Alemania). "Hipokondriakoa". **Dantza garaikidea.**

Thomas Noone Dance (Katalunia). "Hiru pieza labur: Tact, Tone eta Hutsal". **Dantza garaikidea.**

Asier Zabaleta (Euskadi). "Look". **Dantza garaikidea eta bideoa.**

La intrusa - Damián Muñoz eta Virginia García (Euskadi). "Descarga-eremua". **Dantza garaikidea.**

Circle of Trust (Zaragoza) + **BBoy Reveal** (EEBB). "Argizari museo/Papiroflexia". **Hip Hop**



MUSIKA

Musikak hiri osoa beteko du, estilo klasikoenetatik hasi, eta flamenkoraino nahiz jazz latinoraino.

Ramón de la Sota kaia (Itsas Museoren ondoan)

Concha Buikaren kontzertua. 23:45

lji-toen artean hazitako guraso ginearreko mallorcarrak bere azken albuma aurkeztuko digu, *Niña de Fuego*. Bere musikan, flamenkoa soularekin, jazzarekin, funkarekin eta koplarekin nahasten da.

Areatzako kioskoa

Jazz latinoaren gaua. Puerto Candelaria (Kolonbia)

Emanaldiak: 21:00 eta 00:00.

2000 urtean sortutako jazz talde kolonbiarra, berritzailea eta ausarta. Hasiera batetik, haien ezaugarri nagusia izan da jazz eta hiri-folklorearen nahastu duen proposamena: guasca, porro, vallenato eta chucu-chucu erritmoak, besteak beste. Kolonbiar Andeatako eskualdeko kultura-adierazpen autoktonoak, kostako erritmo mestizoak eta herrialdeko kultura afro-antillarraren soinua ikertzetik sortu da fusio hori.

Eleiz Museoa (Klaustroa)

Flamenko-gau eklektikoa. 20:30etatik 2:00etara

Somorrostro Dantza Flamenkoa. Igande Patrizioa.

Flamenko herrikoia gailurra ingurunerik hoberenean, harria eta berdea gaua gurtzeko bildu dituen patioan.

Deustuko Unibertsitatea (Klaustroa)

Sustraietatik hostoetara

Emanaldiak: 20:30 / 22:30 / 00:30

Oreka Tx-Kukai Dantza Konpainia-Amaren Alabak

Oreka Tx taldeak, Kukai Dantza Konpainiarekin eta Amaren Alabak ahots polifonikoen koruarekin batera, musika tradizionala garaikidetasunerako ekarriko duen gauera gonbidatzen gaitu.

Euskal Museoa

Galatea taldea. Tintazko mamuak. Omenaldia Bilbori eta Itsasadarrari.

Emanaldiak: 20:45 / 21:45 / 23:45 / 00:45

Musika eta abestiak poesia-errezitaldiarekin fusionatzen duen ikuskizun poetiko eta musikala. Bilborentzako eta Itsasadarrarentzako alegoria da, Bilboko poeten testigantza Galatearen omenaldiaren eta ahotsaren bidez.

Santiago Katedrala ataria

Denon musika. Emanaldiak: 20:30 h / 22:00 h / 22:45 h / 23:45 h

Akordeioen Bilboko Orkestra Sinfonikoa.

San Anton Orfeoia.

San Antonio Korala Iralabarri.

Bilboko Elkarte Koralararen Kontserbatorioko Korua.



Lau talde bilbotarrek gure musikariek maiteena hurbilduko digute: musika herrikoia, akordeoiak, kantuak... Ospakizun kolektiboa, alegia.

LITERATURA

Liburuek ahotsa eta hitza hartuko dute hainbat pertsonalitate bilbotarren bidez eta haien etxean, Bidebarrietako liburutegian, alegia, gordetzen dituzten sekretuak ezagutzera gonbidatuko gaituzte. Testu-sortak irakurketaren jai honetara gonbidatutako pertsona desberdinen izaera islatzen du.

Bidebarrietako liburutegia

Liburuek hitz egiten dute. 20:30etatik 1:30etara.

Irakurketa-maratoi honetan, hiriko pertsona ospetsu eta pertsonaia askok liburutegiko funtsetako testuak hautatuko dituzte haien hirikideei irakurtzeko. **Gurutze Beitia** aktorea eta aurkezle bilbotarrak zeremonia zuzenduko du.

Itzalen arteko ustekabeak

Ustekabeak aurkituko ditugu Bilboko kaleetan gau osoan zehar. Horrela bada, espazio batetik besterako ibilbideak jai-izaera ludikoa izango du.

FANFARREA- *La Belle Image*. 25 musikariz osatutako kolektiboa, Loira haraneko hainbat herritik etorritakoak, Orleansetik Bloisera.

ZIRKUA- *Ale Hop*. Zirkuaren, antzerkiaren, ikusizko inaktuaren eta umore onaren nahasketa, dena abangoardiako estetika pertsonalarekin jantzia.

ARTE KAPILARRA-*Osadía*. Arte kapilarraren erakustaldi orijinala eta probokatzailea, publikoaren parte-hartze aktiboa eskatzen duena.

Argia ilunpetan

T.I.L.T. artista frantziarrek argi-elementuetan oinarritutako arte-instalazioen multzoa diseinatu dute berariaz "Gau Zurirako", horrekin balizko gaueko mundu bat sortu eta Bilboko gau handian mugimendua duten espazioetako batzuk zeharkatzeko.

Kokapenak:

Arte Ederren Museoa (Museoaren plaza)

Arrupe pasabidearen muturrean (Abandoibarrako pasealekuaren eta Deustuko Unibertsitatearen aldean)

Isozaki dorreetako eskailerak (Uribitarte pasealekuko zatia)

Campo Volantin pasealekua

Santiago plaza

Laguntzaileak

Bilbao 700-III Millenium Fundazioak eskerrak eman nahi dizkie ekitaldiarekin bat egin duten honako entitate hauei, zortzigarren “Gau Zuria” egia bihurtzeko eskainitako laguntzagatik.

- **El Correo egunkaria**
- **Arriaga Antzokia**
- **Bidebarrietako liburutegia**
- **BilbaoArte**
- **Deustuko Unibertsitatea**
- **Arte Ederren Bilboko Museoa**
- **Guggenheim Bilbao Museoa**
- **Euskal Museoa**
- **Eleiz Museoa. Bizkaia**
- **Santiago katedrala**

Informazioa

Bilbao 700-II Millenium Fundazioa

Zabalgune plaza 11 – 1. solairua 48009 BILBAO

Tel.:94.679.04.88 www.bilbao.net

GAU ZURIA

Prensa Bulegoa

Alma Moro

94 420 48 88/686 10 22 79

almamoro@alcaldia.bilbao.net